

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Elkarteen Erregistro Orokorrean  
aurkeztutako kontu-emateen  
azterketa eta egiaztapena

Onura Publikoko Elkarteak  
2014ko ekitaldia

**2016KO ABENDUA**

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio  
Erregistroetako Zuzendaritza  
Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y  
Registros Administrativos

---



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	3
TXOSTEN HONEN ANTOLAKETA .....	4
TXOSTEN HONEN XEDEA .....	4
I. KAPITULUA: Espediente guztiak kuantifikatzea .....	5
II. KAPITULUA: Betebeharra noraino bete den eta agiriak zuzenak diren ebaluatzea.....	11
III. KAPITULUA: Agiriak noraino eguneratu diren ebaluatzea .....	13
IV. KAPITULUA: Beste betebeharrak batzuk noraino bete diren ebaluatzea.....	16
V. KAPITULUA: Ondareari eta jarduerari buruzko magnitude nagusiak aztertzea .....	22
VI. KAPITULUA: Kontuak aurkeztu dituzten onura publikoetako Zuzendaritza-Batzordeen datuak aztertzea, sexuen arabera banatuta .....	39
ONDORIOAK .....	48
ERANSKINA.....	50



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **AURKEZPENA**

Administrazio Publiko eta Justizia Sailaren (Gaur egun Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila) mendeko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak (aurrerantzean Zuzendaritza), Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua (aurrerantzean Babesletzaren Erregelamendua) onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuaren 2. eta 4. artikuluetan eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen (aurrerantzean Elkarteen Legea) 46. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko Onura Publikoko Elkarteen Babesletzari (aurrerantzean Babesletza) ezarritako eginkizunen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan inskribatutako onura publikoko elkarteek Babesletzaren aurrean beren kudeaketa justifikatzeko aurkeztu behar dituzten ekonomia- eta kontabilitate-agiriak aztertzeke eta egiaztatzeke lana egin du.

Aurkeztutako kontuak gordailutzea eta jendaurrean jartzea bidezkoa den baloratzeko (Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikulua eta onura publikoko elkarteei buruzko prozedurei buruzko abenduaren 19ko 1740/2003 Errege Dekretuaren 6. artikulua), Elkarteen Babesletzak egiaztatzen du ea entregatutako agiriak elkarteei aplikatu beharreko araudian bildutako baldintzak betetzen dituzten<sup>1</sup>.

Erakundeek aurkeztutako ekonomia-agiriak indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, Babesletzak dagokion errekerimendua bidali du, elkarteek ezarrita dagoen epearen barruan detektatutako akatsak konpon ditzaten, agiriak gordailutzeke eta jendaurrean jartzeko Elkarteen Erregistrora bidali aurretik. Epe hori igarotakoan azaldu den hori betetzen ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da. Hortaz, ebazpena emanez prozedura amaitutzat emango da, kontuak emateari buruzko espedientea artxibatuko da eta kontu horiek Erregistroan gordailutuko dira.

---

<sup>1</sup> Aplikatu behar den araudia:

- 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenak, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearenak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenak.
- 1497/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituena.
- 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.
- 146/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena.



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **TXOSTEN HONEN XEDEA**

Prozedura horiek amaitu ondoren, Zuzendaritzaren iritziz txosten bat prestatu behar da berrikusitako erakunde guztietarako informazioa orokorrean emateko. Horrekin batera grafikoak aurkeztuko dira sektoreen arabera, erakundearen tamainaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearekiko loturaren arabera, lurraldeka. Txostenean, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko datuak jasoko dira: zuzkidura, ondarea, diru-sarrerak eta gastuak, diru-laguntzak, langileria-gastuak eta abar.

Jarraian aurkeztuko den agiri honetan txosten orokor hori jasotzen da. Txosten horretan aurkeztu diren espediente guztiak berrikusitakoan lortutako emaitza nagusiak eta onura publikoko erakundeek emandako informazioaren azterketa eta egiaztapena.

Emaitza eta ondorio horietan kontuan hartzen dira hasieran entregatutako agiriak nahiz gerora, txostenaren datara arte, bidalitako errekerimendu bidez eskatuta ekarritakoak.

### **TXOSTEN HONEN ANTOLAKETA**

- I. kapitulua: Berrikusitako espediente guztiak kuantifikatzea, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztutako espedienteak, euskararen erabilera, lurralde historikoaren nahiz kategoriaren edo sailkapenaren arabera taldekatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreari lotutako onura publikoko elkarteak. Kontuak aurkeztu ez dituzten erakunde guztiak kuantifikatzea eta lurraldeka antolatzea
- II. kapitulua: Kontuak emateari buruzko espedientearen agertu behar duten agiriak entregatzeko betebeharra noraino bete den ebaluatzea eta agiri horiek zuzentzea, eta epearen barruan edo atzeratuta aurkeztu diren egiaztatzea.
- III. kapitulua: Aurkeztutako kontuak kontabilitate-araudi berriak sartutako aldaketen arabera noraino eguneratu diren ebaluatzea (aplikatu beharreko kontabilitate-plana)
- IV. kapitulua: Diru-sarrerak xedeak betetzeko erabiltzeari eta kontuak kanpoko auditoretzaren mende jartzeko betebeharrari lotutako beste betebeharrak batzuk noraino bete diren ebaluatzea.
- V. kapitulua: Erakundeen ondareari eta jarduerari buruzko magnitude nagusiak aztertzea
- VI. kapitulua: Kontuak aurkeztu dituzten onura publikoetako Zuzendaritza-Batzordeen datuak aztertzea, sexuen arabera banatuta
- Ondorioak



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### I. KAPITULUA: ESPEDIENTE GUZTIAK KUANTIFIKATZEA

Txosten honen datan, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan onura publikoko elkartetzat jotzen diren erakundeak, guztira, 244 ziren (2013ko ekitaldiari buruzko txostenaren datan 232 erakunde). 2014ko ekitaldiko kontuak emateari dagokionez, Erregistroan kontuak aurkezteko betebeharra duten onura publikoko elkarteak 228 ziren. Jarraian, 2013, 2014 eta 2015ean kontuak aurkeztu behar izan zituzten onura publikoko elkarteak kuantifikatzeko taula doa, lurralde historikoaren arabera taldekatuta:

Lurralde Historikoa	Onura Publikoko Elkarteak 2015	%	Onura Publikoko Elkarteak 2014	%	Onura Publikoko Elkarteak 2013	%
Álava/Araba	37	%15	37	%16	35	%16
Bizkaia	124	%50	112	%48	109	%49
Gipuzkoa	88	%35	82	%35	79	%35
<b>Guztira</b>	<b>249</b>	<b>%100</b>	<b>231</b>	<b>%100</b>	<b>223</b>	<b>%100</b>

*Urteko kontuak ematera behartuta dauden onura publikoko elkarteak*

Honako taula honetan agertzen dira 2014ko eta 2015eko ekitaldietan onura publikokotzat deklaraturako erakunde berrien ondorioz eta desegiteagatik, bat egiteagatik edo beste erregistro batera lekualdatzeagatik erregistroan baja izan diren erakundeen ondorioz kontuak eman behar dituzten onura publikoko elkarteen zerrendan egondako mugimenduak:

Onura Publikoko Elkarteak 2013	223
Altak	9
Bajak	1
Onura Publikoko Elkarteak 2014	231
Altak	20
Bajak	2
Onura Publikoko Elkarteak 2015	249

Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, onura publikoko elkarteek Erregistroan agiri jakin batzuk aurkeztu beharko dituzte artikuluko horretan eta irabazteko asmorik gabeko erakundeei aplikatu beharreko kontabilitate-araudian jasotako xedapenen eta irismenaren arabera, hori guztia, kontuak zein ekitaldi buruzkoak diren eta ekitaldi horren itxieraren osteko lehenengo seihilekoaren barruan.



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Txosten hau egin den datan, onura publikoko 189 elkartek aurkeztu dituzte 2014ko ekitaldiari dagozkion kontuak (2013ko ekitaldian 188 erakundek, eta 2012an onura publikoko 180 elkartek aurkeztu zituzten kontuak, hurrenez hurren guztira halako erakundetzat jotzen diren 231 eta 223 elkarteekin alderatuta). Ondorioz, Babesletzaren lana kontu horiek berrikusi eta aztertzea izan da, besterik ez. 2013ko ekitaldian, txostena egin zen datan, 186 elkartek aurkeztu zituzten kontuak; hala ere, 2015ean, 2013ko ekitaldiari buruzko kontuak beste 2 erakundek aurkeztu zituzten. Hortaz, txosten honen datan 2013ko ekitaldiari dagozkion kontuak onura publikoko 188 elkartek aurkeztu dituzte.

Aurkeztutako kontuak –Babesletzak aztertu dituen horiek– gerora aztertuta, ikusten da 2013ko ekitaldian bi erakundek eta 2014an beste 3k kontuak aurkeztu dituztela horretarako betebeharririk izan gabe, erakunde horiek onura publikokotzat hurrenez hurren 2014ko eta 2015eko ekitaldietan deklaratu zirelako.

Jarraian zehaztuko dira 2014ko eta 2013ko ekitaldiei buruzko kontuak eman dituzten erakundeak, lurralde historikoaren arabera taldekatuta:

Lurralde Historikoa	Onura Publikoko		Onura Publikoko	
	Elkartek 2014	%	Elkartek 2013	%
Álava/Araba	33	%17	34	%18
Bizkaia	92	%49	87	%46
Gipuzkoa	64	%34	67	%35
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>%100</b>	<b>188</b>	<b>%99</b>

*Urteko kontuak aurkezten dituzten onura publikoko elkarteak*

Horrenbestez, txosten honen datan 2014ko eta 2013ko ekitaldietako kontuak aurkeztu **ez** dituzten erakundeen banakapena honako hau da:

Lurralde Historikoa	Onura Publikoko		Onura Publikoko	
	Elkartek 2014	%	Elkartek 2013	%
Álava/Araba	4	%9	2	%1
Bizkaia	23	%51	22	%12
Gipuzkoa	18	%40	13	%7
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>%100</b>	<b>37</b>	<b>%20</b>

*Urteko kontuak aurkeztu ez dituzten onura publikoko elkarteak*



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

2014ko lehenengo seihilekoan, administrazio-erregistroen ataria gaitu zen. Hala, onura publikoko fundazio eta elkarteek urteko kontuen aurkezpena elektronikoki tramitatu dezakete.

Jarraian, laburbilduta agertzen dira txosten honen datan kontu-ematea elektronikoki aurkeztu duten erakundeak:

Espediente telematikoen zkia.	2013 ekitaldiko kontu ematea	2014 ekitaldiko kontu ematea	2015 ekitaldiko kontu ematea
Sarrera 2014an	5	NA	NA
Sarrera 2015ean	0	7	NA
Sarrera 2016an	0	1	14
<b>Bide elektrikoaren bidez aurkeztu diren kontuak</b>	<b>5</b>	<b>8</b>	<b>14</b>
<b>Guztira, aurkeztu diren kontuak</b>	<b>188</b>	<b>189</b>	<b>188</b>
<b>Telematikoki, %tan</b>	<b>%3</b>	<b>%4</b>	<b>%7</b>

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan xedatuta dagoena garatzen du. Lege horren 5. artikulua euskal herritarrei aitortzen die Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatearekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

Xede horrekin, gutxi gorabehera elkarteen % 16 Zuzendaritzarekin euskaraz jartzen dira harremanetan (idatziz edo telefono bidez), dela eurek kontratatutako langileen bitartez, dela eurek azpikontratutako langileen bitartez.

Hala ere, elkarte gutxi aurkeztu dituzte kontuak ematearekin lotutako agiriak euskaraz, jarraian ikus daitekeenez:

Kontuen hizkuntza	Onura Publikoko Elkarteak 2014	%
Euskara	6	%3
Gaztelania	182	%96
Elebiduna	1	%1
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>%100</b>

*Onura publiko elkartearen kontuak, hizkuntzaren arabera*



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Beste alde batetik, onura publikoko elkarteak sailkatu ditugu egiten duten jardueraren izaeraren edo xedearen arabera edo lotutako taldearen ezaugarrien arabera:

- Lehenengo kategoria: Gaixotasun edo ezgaitasun bat dutenak
- Bigarren kategoria: Laguntza eta ongintza-erakundeak eta lan arloko erakundeak
- Hirugarren kategoria: Autonomia-erkidegoetako etxeak
- Laugarren kategoria: Kultur eta gazteria arloko erakundeak
- Bosgarren kategoria: Bestelakoak

Kategoria horietako bakoitzari atxikita dauden eta 2013ko eta 2014ko ekitaldiei buruzko kontuak emateko betebeharra duten erakundeak, guztira, honako hauek dira:

Kategoria	Onura Publikoko Elkarteak 2014		Onura Publikoko Elkarteak 2013	
		%		%
Lehenengoa	67	%29	64	%29
Bigarrena	74	%32	73	%33
Hirugarrena	34	%15	34	%15
Laugarrena	45	%19	43	%19
Bosgarrena	11	%5	9	%4
<b>Guztira</b>	<b>231</b>	<b>%100</b>	<b>223</b>	<b>%100</b>

*Urteko kontuak ematera behartuta dauden onura publikoko elkarteak*

Berrikusitako erakundeen xehetasuna, xedearen arabera sailkatuta, honako hau da (2013ko ekitaldian betebeharririk izan gabe kontuak aurkeztu zituzten 2 erakunde sartu ziren, eta 2014koan halako 3 elkarte):

Kategoria	Onura Publikoko Elkarteak 2014		Onura Publikoko Elkarteak 2013	
		%		%
Lehenengoa	61	%32	59	%31
Bigarrena	68	%36	66	%35
Hirugarrena	18	%10	36	%19
Laugarrena	33	%17	19	%10
Bosgarrena	9	%5	8	%4
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>%100</b>	<b>188</b>	<b>%100</b>

*Urteko kontuak aurkezten dituzten onura publikoko elkarteak*

Horrenbestez, txosten honen datan 2014ko eta 2013ko ekitaldietako kontuak aurkeztu ez dituzten erakundeen banakapena, kategorien arabera, honako hau da:






## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Onura Publikoko Elkarteak 2014	%	Onura Publikoko Elkarteak 2013	%
Lehenengoa	7	%16	6	%16
Bigarrena	8	%18	7	%19
Hirugarrena	16	%36	15	%41
Laugarrena	12	%27	8	%22
Bosgarrena	2	%4	1	%3
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>%100</b>	<b>37</b>	<b>%100</b>

*Urteko kontuak aurkeztu ez dituzten onura publikoko elkarteak*

Kontuak aurkeztu dituzten erakundeen eta hala egin ez duten erakundeen arteko proportzioaren aurkezpen grafikoa, lurralde historiko bakoitzean eta kategoria bakoitzean, honako hau da:



Biltzar Nagusiak urteko kontuak onesteari buruz Elkarteko idazkariak egindako ziurtagirian agertzen den informaziotik, kasu batzuetan (133 erakunde, hau da, betebeharra izanik kontuak aurkezten dituzten onura publikoko elkarteen % 71,5), Elkarteak osatzen duten bazkideen kopurua identifikatu ahal izan da. Jarraian aurkeztuko dira azterketa horren kopururik adierazgarrienak:



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Bazkideak	Bazkide kop. (batazbestekoz)
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	%44	464
Ongintza-sorospen eta lan arloa	%14	179
Autonomia-erkidegoetako etxeak	%7	282
Kultura eta gazteria	%28	763
Beste batzuk	%6	291
<b>Guztira</b>	<b>%100</b>	

Ikusten denez, bazkideen kopururik handiena gaixotasun edo ezgaitasun bat dutenen elkarteetan biltzen da (% 44), eta horien atzetik hurbil doaz kultur eta gazteria arloko erakundeak (% 28); azken horietan, era berean, aztertutako elkarteen artean batez besteko bazkide kopururik handiena agertzen da (erakunde bakoitzeko 763 bazkide).

#### EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak, 2014

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean, Ogasun eta Finantza Sailari buruzko atarian, "Finantza-informazio publikoa" atalean eskuragarri dagoen informazioaren arabera, EAEko sektore publikoa osatzen duten onura publikoko elkarteak nahiz partaidetutako gainerako onura publikoko elkarteak jarraian agertzen dira laburbilduta:

EAEko Sektore Publikoa eta partaidetza duten entitateak 2014	Onura Publikoko Elkarteak 2014	Urteko kontuak aurkeztu zituzten onura publikoko elkarteak, 2014
Partaidetza publiko gehiengodun duten eta ezein administrazioetako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	2	2
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	1	1
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>3</b>



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **II. KAPITULUA: BETEBEHARRA NORAINO BETE DEN ETA AGIRIAK ZUZENAK DIREN EBALUATZEA**

Atal honetan, eta 2014ko ekitaldiko kontuak emateari buruz berrikusitako espediente bakoitzerako, agiriak entregatzeko betebeharra noraino bete den ebaluatuko dugu. Alde horretatik, lehenago aipatu den Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, kontuak nahitaez aurkeztu behar zaizkio Babesletzari sei hilabeteko epean, ekitaldiaren bukaeratik zenbatzen hasita. Alde horretatik zera esan behar da: salbuespenak salbuespen, berrikusitako erakundeentzat 2015eko ekainaren 30a dela kontuak aurkezteko azken eguna (urte naturalarekin bat ez datorren ekitaldi ekonomikoa duten erakundeak bazter utzita; zehazki, aztertutako onura publikoko 189 erakundeetatik 5 soilik, hau da, aurkeztutako kontuen % 2,6).

Horrela, egiaztatu ahal izan dugu berrikusitako 189 erakundeetatik (betebeharrik izan gabe kontuak aurkezten dituzten hiru elkarteak barnean dira) 37 elkartek, hau da, berrikusitakoen % 19,6k (2013ko ekitaldian, berrikusitakoen % 17,7 berandu entregatu ziren), mugaeguna baino geroago, hau da, berandu entregatu dituztela kontuak.

Alde horretatik, bada, Babesletzak berrikusi egin ditu jasotako kontu-emate guztiak, epe barruan nahiz kanpoan zeudela, helburu honekin: urteko kontu horiek gordailutzea eragozten duten akatsik ez dutela egiaztatu ondoren Erregistroan jendaurrean jarri ahal izatea, eta horrez gain, Babesletzak egiaztatu ahal izan zezan Erregistroan inskribatutako onura publikoko elkarteek kudeaketa egokia egiten dutela.

Beste alde batetik, jarraian zehazten da eskatutako agiri guztiak entregatu dituzten erakundeen kopuruaren kuantifikazioa, bai eta agiri guztiak ez entregatzeagatik zuzenketa-errekerimendua jaso dutenena, bai kopuru absolututan, bai kopuru erlatiboetan:


Obligazioaren betetzea	Onura publikoko elkarteak	%
Dokumentazio guztia aurkeztu dute lehenengo instantzian	97	%51
Lehenengo instantzian ez dituzte aurkeztu edo ez dituzte egoki aurkeztu eskatutako dokumentu guztiak	92	%49
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>%100</b>

*Dokumentazioa egoki aurkeztu duten onura publikoko elkarteak eta hura zuzentzeko errekerituak izan direnak*



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Berrikusitako 2014ko ekitaldiko kontu-emateetan 194 akats ikusi dira. Ahulgune horiek 92 elkarterenak izan dira. Horiei guztiei zuzenketa-errekerimendua igorri zaie. Jarraian, ahulgune horiek identifikatuko dira, tipologiaren arabera taldekatuta:



### Ahulgune motak:

- ✓ *Urteko kontuen auditoretza-txostena:* Kontuen auditoretza-txostena falta da.
- ✓ *Kontuak onartzeari buruzko ziurtagiria:* Ziurtagiria falta da. Ziurtagiri okerra
- ✓ *Balantzea eta emaitzen kontua:* Balantzea falta da. Emaitzen kontua falta da. Biak falta dira.
- ✓ *Memoria:* Memoria falta da. Memorian eman behar den gutxieneko informazioa falta da.
- ✓ *Aurrekontuaren likidazioa:* Aurrekontuaren likidazioa falta da.
- ✓ *Diru-sarreren aplikazioa:* Jasotako diru-sarreren jatorria, zenbatekoa, xedea eta aplikazioa zehazteko informazio nahikorik ez dago. Interes orokorra edo guztien ongia lortzeko aplikatutako gastuen zenbateko osoa egiaztatu ahal izateko informazio nahikorik ez dago.
- ✓ *Konparaziorako informazioa:* Konparaziorako informazioa falta da balantzean, emaitzen kontuan eta/edo memorian.
- ✓ *Deskoadratzeak:* Deskoadratutako finantza-egoerak: Aktiboa-Pasiboa / Balantzeko soberakina-Emaitzen kontuko soberakina / Deskoadratutako ondare garbiaren aldakuntza (Balantzeko aldakuntza – Emaitzen kontuko aldakuntza)



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **III. KAPITULUA: AGIRIAK NORAINO EGUNERATU DIREN EBALUATZEA**

Elkarte baten urteko kontuak balantzean, emaitzen kontuan eta memorian daude jasota. Agiri horiek, Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikulua arabera, Babesletzari aurkeztu beharreko kontu-ematean agertu behar dute, batasun bat osatu behar dute, eta erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta jardueren emaitzen irudi zehatza erakutsi behar dute.

Zorrotz hartuta, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenetan, eta urriaren 24ko 1497/2011 Errege Dekretuan, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredu onartzen dituenean ezarrita dagoenez, irabazi-asmorik gabeko erakundeen urteko kontuek ondarearen, finantza-egoeraren eta ekitaldian ondare garbian izandako aldakuntzen irudi zehatza erakutsi behar dute, bai eta egindako jardueraren eta bete beharrekoaren betetze-mailaren irudi zehatza eta eskudiru-fluxuen egoera-orrian aurkeztutako fluxuen benetakotasuna ere (azken horri buruzko informazioa eman behar duenean).

Hala, urteko kontuen memorian bete beharreko gutxienezko informazioan hainbat alderditako informazioa sartzen da, besteak beste honako hau: ondasunak, eskubideak, obligazioak eta erakundearen ondarea osatzen duten beste elementu batzuk, eskudiru-fluxuei buruzko informazioa, hori betetzera behartzen duten baldintzak betetzen direnean (eskudiru-fluxuen egoera-orria), bai eta erakundearen helburuak betetzeko aurreikusitako jarduerak zein neurritaraino egin diren azaltzen duen informazioa ere, horietako bakoitzean lortutako eta aplikatutako baliabideen artean diferentziak ezarrita, eta onuradunen edo erabiltzaileen eta xede horiek lortzeko erabilitako giza baliabideen kopurua identifikatuta (Erakundearen jarduerari buruzko oharra eta Aurrekontuaren likidazioa).

Gure iritziz bereziki garrantzitsua da onura publikoko elkarteak kontabilitate-araudi berrira zein neurritaraino egokitzen zaizkion aztertzea.

#### **Aplikatu behar den kontabilitate-plana**

Elkarteen Erregistroaren web plataforman –[www.euskadi.net/registros](http://www.euskadi.net/registros) – azaltzen denez, aukera dago kontabilitate plan diferentek aplikatzeko; horrekin batera, eredu diferentek doaz urteko kontuak osatzen dituzten agiriak aurkezteko, eta gainera, eragiketarako erregistratzeko irizpide diferentek aplikatu behar dira.

Alde horretatik, irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-plana edo irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-planaren eredu laburtua ausaz aplikatu ahalko dute onura publikoko elkarteek, baldin eta bi ekitalditan jarraian, ekitaldi bakoitzaren amaieran, gutxienez honako inguruabar hauetako bi badauzkate:



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

1. Aktiboaren partiden guztizko kopurua gehienez bi milioi zortziehun eta berrogeita hamar mila euro izatea.

2. Diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia gehienez bost milioi zazpiehun mila euro izatea. Xede horretarako, diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia 1. partiden –«Erakundeak bere jardueraren zioz lortutako sarrerak»– eta, bidezkoa izanez gero, merkataritza-jardueraren negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren arteko batura izango da.

3. Ekitaldian, batez beste, berrogeita hamar langile gehienez izatea.

Inguruabar horiek gaindituz gero, onura publikoko elkarteek irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-planaren eredu normala aplikatuko dute.

Era berean, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituenean azaldutako irizpideak, irabazi-asmorik gabeko mikroerakundeentzat, onura publikoko fundazio eta elkarteek aplikatu ahalko dituzte baldin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-plana aplikatzea hautatu badute eta ondoz ondoko bi ekitalditan, ekitaldi bakoitzaren amaieran, honako inguruabar hauetako bi betetzen badituzte:

1. Aktiboaren partiden guztizko kopurua gehienez 150.000 euro izatea.

2. Diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia gehienez 150.000 euro izatea. Xede horretarako, diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia 1. partiden –«Erakundeak bere jardueraren zioz lortutako sarrerak»– eta, bidezkoa izanez gero, merkataritza-jardueraren negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren arteko batura izango da.

Ekitaldi ekonomikoan, batez beste, bost langile gehienez izatea.

Onura publikoko elkarteek memorian identifikatu beharko dute aurkeztutako kontuetan aplikatutako plana.

Egindako lanaren ostean, honako emaitza orokor hauek lortzen ditugu:

**Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen  
azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

Aplikatu beharreko Plana	Onura publikoko elkartea	%
PGCESFL NORMALA	12	%6
PGCESFL LABURTUA/PYME	96	%51
PGCESFL SINPLIFIKATUA	77	%41
Zehaztugabea	4	%2
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>%100</b>

*Aztertutako onura publikoko elkarteek aplikatu beharreko kontabilitate-plana*



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **IV. KAPITULUA: BESTE BETEBEHAR BATZUK NORAINO BETE DIREN EBALUATZEA**

Urteko kontuak indarrean dauden kontabilitate-irizpideetan oinarrituta formulatzeaz eta aurkezteaz gain, onura publikoko elkarteei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko funtsezko araudiak berak hainbat betebegar ezartzen du, ez soilik erakundeentzat beraientzat, baizik eta Babesletzarentzat ere bai. Betebegar horiek egiaztatuta ahal dira, zati batean, urteko kontu horietan eman beharreko gutxienezko informazioaren barnean doan azterketaren bidez, edo, betiere, kontuak emateari buruzko espedientearen zati gisa nahitaez aurkeztu beharreko gainerako agiriak aztertuz.

Jarraian betebegar horiek agertzen dira laburbilduta:

- ✓ Babesletzaren Erregelamenduaren 21. artikulua ezartzen duenez, Babesletzak, besteak beste, eginkizun hauek ditu: batetik, onura publikoa aitortzeko oinarritzat hartu ziren baldintzak betetzen direla bermatzea, eta bestetik, onura publikoko elkarteek aurkeztutako agiriak aztertzea eta agiri horien jarraipena egitea.

Zehazki, onura publikoko elkarteentzat, funtsezko araudiak ez du behartzen diru-sarreraren % 70 gutxienez xederen baterako erabiltzera, fundazioen araudiak ez bezala; hala ere, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-plan berria aplikatzen denetik, eta Babesletzaren Erregelamenduaren 12. artikulua oinarri hartuta –bertan ezartzen da erakunde horiei aplikatu beharreko kontabilitate-araubidea–, onura publikoko elkarteek era berean informazioa eman beharko dute errenten eta diru-sarreraren xedeari buruz, bai eta ekitaldian xedeak betetzeko erabilitako baliabideei buruz ere.

Xede horretarako, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenek, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenek, urriaren 24ko 1497/2011 Errege Dekretuak, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorren egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko entitateen jardueraren erredua onartzen dituenak aginduta, irabazi-asmorik gabeko erakundeek informazioa eskatzen zaie errenten eta diru-sarreraren xedeari buruz, beren lanaren ezaugarri den gizarte-helburua kontuan hartuta.

Hori hala da premisa honen arabera: irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dute onura propioa bilatzen, baizik eta orokorrean komunitatearen onura. Arrazoi horregatik, urteko kontuak –bereziki emaitzen kontuak– eman behar duten irudi zehatzak bereziki alderdi jakin batzuk azpimarratu behar ditu, hala nola epealdi batean lortutako baliabideen aurkezpena eta baliabide horiek xede batzuk eta besteak lortzeko erabili izana, emandako informazioa ulergarria eta erabilgarria izan dadin ekartzaileentzat,





## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

bazkideentzat, onuradunentzat eta beste interesdun batzuentzat –adibidez Administrazio Publikoarentzat–.

Era berean, Babesletzaren Erregelamenduaren 17. eta 18. artikuluek ezartzen dutenez, onura publikoko elkarteek “Memoria bakarrean” zehaztuko dituzte jasotako diru-sarreraren jatorria, zenbatekoa, xedea eta aplikazioa. Halaber, memorian azalduko dute egindako jardueren bitartez zein modutan lortu den interes orokorra edo guztien ongia.

- ✓ Garrantzi ekonomikoa duten onura publikoko elkarteek kanpoko kontu-ikuskaritza jasan beharko dute, kontu-ikuskaritza arautzen duen legean eta legea garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera. Bi urtetan, bata bestearen ondoan, ondoren adierazten diren ezaugarrietako bi gutxienez dauzkaten elkarteak izango dira garrantzi ekonomikoa dutenak:

- a) Elkarteko ondarearen balioa 2.000.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa izatea. Elkartearen egoera-balantzean agertzen den aktiboaren diru-zenbateko osoa izango da ondarea, ekitaldia amaitzen den egunean betiere.
- b) Elkarateak kudeatutako jardueren bolumena 3.000.000,00 eurokoa edo gehiagokoa izatea. Elkartearen ohiko jarduerengatik emaitza-kontuko hartzekoan agertzen diren diru-sarreraren urteko kopuru garbia izan behar du kopuru horrek.
- c) Fundazioak, bere kabuz, enpresa-jardueraren bat gauzatu izana edota bazkideen erantzukizuna mugaturik duen edozein sozietatetan % 5 baino gehiagoko partaidetza edukitzea.
- d) Pertsona onuradunek ordaindutako zerbitzuen kopurua edo bolumena elkarteak egindakoak baino askoz handiagoak izatea.
- e) Ekonomia-ekitaldian zehar enplegatutako langileen batez besteko kopurua 50etik gorakoa izatea.

Sozietate anonimoak kontu-ikuskaritza egitera behartzen dituzten ezaugarriak dituzten onura publikoko elkarteak, nolana ere, garrantzi ekonomikoa duten onura publikoko elkartetzat joko dira. Alde horretatik, urriaren 31ko 1517/2011 Errege Dekretuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bategina garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, bere xedapen gehigarrietan zera azaltzen du:

- a) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte sozietate-ekitaldiko urteko kontuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan ezarrita



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

dagoenaren arabera, baldin eta ekitaldi horretan, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bateginaren 257. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, balantze laburtua egiteko aurreikusitako inguruabarrak ez badira gertatzen eta eredu normalaren arabera egin behar bada.

- b) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, sozietate-ekitaldi batean Administrazio Publikoen aurrekontuen kontura edo Europar Batasunaren funtsen kontura guztira 600.000 euroko zenbateko metatuta egiten duten diru-laguntzak edo laguntzak jaso badituzte, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte ekitaldi horretako urteko kontuak, bai eta eragiketa horiek egiten direneko edo diru-laguntza edo laguntza horiei dagozkien inbertsioak betearazten diren ekitaldietako kontuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.
- c) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, ekitaldi ekonomiko batean sektore publikoarekin Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako kontratuak egin badituzte guztira 600.000 euroko zenbateko metatuan, eta zenbateko hori beren urteko negozio-kopuruaren zenbateko garbiaren % 50 baino gehiago bada, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte sozietate-ekitaldi horretako urteko kontuak eta hurrengo ekitaldikoak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1. artikuluko 2. zerbakian ezarrita dagoenaren arabera.

Egindako lanaren ostean, honako emaitza orokor hauek lortzen ditugu:

### Diru-sarreraren aplikazioa

Diru-sarreraren aplikazioari buruzko alderdiak konpontzeko errekerimendua jaso dute 35 erakundeek, hau da, errekerimendua jaso duten elkarteen % 38k eta aztertutako elkarteen % 18,5ek.

Egindako azterketatik ondorioztatuenez, onura publikoko elkarteek diru-sarrerara ia-ia guztiak beren Estatutuek ezarritako xedeekin lotutako gastu eta inbertsioetarako erabiltzen dituzte.

Honako laburpen-taula honetan kuantifikatzen dira Estatutuek ezarritako xedeak betetzeko erabilitako gastu eta inbertsioak. Era berean, gastu eta inbertsio horiek diru-sarreraren kopuru osoan duten garrantzia kalkulatu da:



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Lurralde Historikoa	Diru-sarrerak	%	Xedera aplikatutako gastu eta inbertsioak	Diru- sarrerekiko pisua (%tan)
Alava/Araba	25.576.372	%11	23.867.409	%93,3
Bizkaia	124.714.407	%55	124.525.873	%99,8
Gipuzkoa	76.944.378	%34	74.385.680	%96,7
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>%100</b>	<b>222.778.962</b>	<b>%98,0</b>

*Xedera bideratutako %, diru-sarrerekiko, eta lurralde historikoko*

Kategoria	Diru-sarrerak	%	Xedera aplikatutako gastu eta inbertsioak	Diru- sarrerekiko pisua (%tan)
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	111.597.710	%49	108.265.750	%97,0
Ongintza-sorospen eta lan arloa	61.296.217	%27	60.841.548	%99,3
Autonomia-erkidegoetako etxeak	671.865	%0	422.317	%62,9
Kultura eta gazteria	21.234.294	%9	20.024.161	%94,3
Beste batzuk	32.435.073	%14	33.225.186	%102,4
<b>Total</b>	<b>227.235.157</b>	<b>%100</b>	<b>222.778.962</b>	<b>%98,0</b>

*Xedera bideratutako %, diru-sarrerekiko, eta kategoriak*

#### Garrantzi ekonomikoa

Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikulua ezartzen duenez, elkarteko lehendakariak, kontuak emateko eskabidearekin batera, kontuak auditatu beharra dagoen ala ez adierazi behar du, kontu-ikuskaritza arautzen duen legean edo erregelamendu honetan aurreikusitako kasuen arabera.

Kasu gehienetan, garrantzi ekonomikoa dutela uste dugun erakundeak identifikatu ahal izan ditugu, eta erakunde horiei errekerimendua bidali diegu kanpo-auditorearen txostena entregatzean huts egin badute.

Egitate horiek ezarrita, eta egindako lanaren ostean, atal honetan lortutako emaitza orokorrak honako hauek izan dira (kontuan hartu gabe horretarako betebeharririk izan gabe kontuak aurkeztu dituzten hiru elkarteak):

- ✓ Aurkeztutako espediente bakoitzerako egiaztatu da Babesletzaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren. Hori egindakoan, zera ikusi da da: guztira 51 erakundek dute garrantzi ekonomikoa, hau da, berrikusitako 186



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

erakundeetatik % 27k (2013ko eta 2012ko ekitaldietan berrikusitakoen % 25,3k eta % 12k, hurrenez hurren), eta horrenbestez, 2014ko ekitaldiko urteko kontuak kanpo-auditoretzarako aurkeztu behar dituzte, honako koadro honetan laburtuta agertzen denez:

Garrantzi ekonomikoa	Onura publikoko elkarteak	%
Garrantzi ekonomikoarekin	51	%27
Garrantzi ekonomikorik gabe	135	%73
<b>Aztertutakoak, guztira</b>	<b>186</b>	<b>%100</b>

*Ikuskatzera behartuta dauden (ez dauden) onura publikoko elkarteak*

Aztertutako erakundeak lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera taldekatuta, honako datu hauek lortzen dira (kontuan hartu gabe horretarako betebeharririk izan gabe kontuak aurkeztu dituzten hiru elkarteak):

Lurralde Historikoa	Garrantzi ekonomikoarekin	%	Garrantzi ekonomikorik gabe	%
Álava/Araba	9	%18	24	%18
Bizkaia	27	%53	62	%46
Gipuzkoa	15	%29	49	%36
<b>Guztira</b>	<b>51</b>	<b>%100</b>	<b>135</b>	<b>%100</b>

*Garrantzi ekonomikoa, lurralde historikoa*

Kategoria	Garrantzi ekonomikoarekin	%	Garrantzi ekonomikorik gabe	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	14	%27	46	%34
Ongintza-sorospen eta lan arloa	27	%53	39	%29
Autonomia-erkidegoetako etxeak	-	%0	17	%13
Kultura eta gazteria	4	%8	22	%16
Beste batzuk	6	%12	11	%8
<b>Guztira</b>	<b>51</b>	<b>%100</b>	<b>135</b>	<b>%100</b>

*Garrantzi ekonomikoa, kategoriak*

- ✓ Era berean, egiaztatu dugunez, "garrantzi ekonomikorik ez" zuten 135 elkarteetatik 9k –hau da, garrantzi ekonomikorik ez duten erakunde guztien % 6,7k– 2014ko ekitaldiko



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

urteko kontuen auditoretza-txostenak aurkeztu zituzten, beren borondatez (2013ko ekitaldiaren amaieran garrantzi ekonomikorik ez zutenen % 9,56 izan ziren).

- ✓ Laburbilduta, 2014ko ekitaldiko urteko kontuen auditoretza-txostena aurkeztu duten erakundeak guztira 59 izan dira, hau da, berrikusitako onura publikoko 186 elkarteen % 31,7 (2013ko eta 2012ko ekitaldietan, aurkeztutako kontuen % 29 eta % 24 aurkeztu ziren auditoretzarako, hurrenez hurren).

Jarraian zehaztuko dira jasotako auditoretza-txostenak, horien artean garrantzi ekonomikoa dutenak eta garrantzi ekonomikorik ez dutenak bereizita:

Garrantzi ekonomikoa	Onura publikoko elkarteak	Ikuskaritza txostena auzetuta
Garrantzi ekonomikoarekin	51	50
Garrantzi ekonomikorik gabe	135	9
<b>Aztertutakoak, guztira</b>	<b>186</b>	<b>59</b>

*Ikuskaritza-txostena aurkezten duten onura publikoko elkarteak*

- ✓ Egia da auditoretza-txostena berrikusitako erakundeen % 31,7k aurkeztu dutela; hala ere, magnitude ekonomiko nagusien multzo bateratua aztertuta, zera ikusten da: ikuskatu egin dira kontuak aurkeztu dituzten onura publikoko elkarte guztien aktiboen % 80, ondare garbien % 73, pasiboen % 91 eta gastu eta diru-sarreraren kopuruen % 87.



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **V. KAPITULUA: ONDAREARI ETA JARDUERARI BURUZKO MAGNITUDE NAGUSIAK AZTERTZEA**

Kapitulu honetan aztertuko ditugu onura publikoko elkarteek kontu-emateen xede diren urteko kontuetako agirietan erakutsi dituzten epigrafe, saldo eta zenbateko batzuk. Aztertutako elkarten finantza- eta ondare-azterketa egiteko oinarri gisa erabili ditugun agiriak, oinarrian, honako hauek izan dira: balantzea, emaitzen kontua eta, neurri txikiagoan, memoria.

Kasu batzuetan, kontabilitate arloko legeriak eskatzen duen gutxieneko informazioa osatzeko, argibide batzuk eskatu behar izan zaizkie (errekerimendua eginez) berrikusitako erakundeetako batzuei.

Alde horretatik, aztertzeko hautatutako magnitudeak dira 2014ko ekitaldiko ondare- eta finantza-egoera eta ekitaldi horretan nahiz ekitaldia amaitzean egindako jarduera-bolumena modurik eraginkorrenean adierazten dituztenak. Zehazki, kalkulu orokorra egin da magnitude hauei buruz:

- Aktiboa
- Pasiboa
- Ondare garbia
- Diru-sarrerak
- Gastuak

Irizpide horiek oinarri hartuta, eta azterketa-lana egin ostean, kapitulu honetan lortutako emaitza orokorrak honako hauek dira:

- ✓ 2014ko ekitaldian, txosten honen datan kontuak eman dituzten onura publikoko 189 elkarte aztertu dira guztira (kontuan hartu gabe horretarako betebeharririk izan gabe 2014an kontuak aurkeztu dituzten hiru elkarteak). Elkarte horien batez besteko antzintasuna 29,4 urtekoa<sup>2</sup> izan zen, eta ekitaldian kudeatu zituzten gastuen zenbatekoa 227.235.157 euro izan zen.

Onura publikoko erakundeen kopururik handiena 80ko eta 90eko hamarkadetan sortu zen (56 eta 69 elkarte, hurrenez hurren). “Autonomia-erkidegoetako etxeak” kategorian batez besteko antzintasuna batezbestekoa baino handiagoa da, zehazki, 50 urte, batez besteko funtzionamenduko 29 urteen aldean.

---

<sup>2</sup> Barnean dira 50 urtetik gorako antzintasuna duten 12 elkarte. Datu hori zuzenduta, aztertutako erakundeen batez besteko antzintasuna 27,2 urtekoa izango litzateke.




## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Entitateak guztira	Batezbesteko antzintasuna (urtetan)
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	61	28,6
Ongintza-sorospen eta lan arloa	68	24,28
Autonomia-erkidegoetak etxeak	17	50,35
Kultura eta gazteria	26	33,5
Beste batzuk	17	25,59
<b>Guztira</b>	<b>189</b>	<b>29,4</b>

*Batezbesteko antzintasuna, kategoriaka*

### *Urteak funtzionamenduan, Kategoriaka*

■ Gaixot. edo ezintasun. kaltetuak ■ Ongintza-sorospen eta lan arloa ■ Eskualde-etxeak ■ Kultura, gazteria eta kirola ■ Beste batzuk




- ✓ Aztertutako 189 erakundeetatik, % 53 mikroerakundeak dira (ekitaldian gastua, guztira, 300.000 eurotik beherakoa izan zen), % 21 tamaina txikiko erakundeak dira (ekitaldian gastuaren zenbatekoa 300.000 eta milioi bat euro bitartekoa izan zen), % 20 ertainak (1 eta 5 milioi euro artean), % 5 handiak (5 eta 25 milioi euro artean) eta % 1 oso handiak (urteko gastuaren aurrekontua 25 milioi eurotik gorakoa da).



**Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**


- Mikro (<300.000€)
- Txikiak (300,000-1MM€)
- Ertainak (1-5MM€)
- Handiak (5-25MM€)
- Oso handiak (>25MM€)



*Onura publikoko elkarteen banaketa, ekitaldiko gastuaren arabera*

**Jarduera-eremua tamainaren arabera (gastuak)**

- Mikro
- Txikiak
- Ertainak
- Handiak
- Oso handiak







## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### MAGNITUDE EKONOMIKOAK

Berrikusitako onura publikoko elkarte guztien (bazter utzita lehenago aipatutako bi elkarteak, guztirako kalkulua egiteko ahulguneak dauzkaten horiek) baterako balantzearen magnitude nagusiak honako balantze bateratu honetan aurkezten dira:

### Aztertutako onura publikoko elkarteen Balantze bateratua, 2014 eta 2013 urteko itxieran (eurotan)

Aktiboa	2014ko itxiera	2013ko itxiera	Ondare Garbia	2014ko itxiera	2013ko itxiera
	204.113.333	199.205.168		122.704.042	116.837.251
Aktiboa, guztira	204.113.333	199.205.168	OG eta Pasiboa, guztira	2014ko itxiera	2013ko itxiera
				81.409.292	82.367.918
				204.113.333	199.205.168

Guztizko kopuru horren barruan sartzen diren erakundeen magnitude nagusiak lurralde historikoaren arabera taldekatuz (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Lurralde Historikoa	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Alava/Araba	17.260.093	%8	9.935.743	%8	7.324.349	%9
Bizkaia	91.302.042	%45	52.893.667	%43	38.408.348	%47
Gipuzkoa	95.551.198	%47	59.874.631	%49	35.676.566	%44
<b>Guztira</b>	<b>204.113.333</b>	<b>%100</b>	<b>122.704.042</b>	<b>%100</b>	<b>81.409.264</b>	<b>%100</b>

Informazio hori bera egindako jardueraren arabera finkatutako kategoria bakoitzean taldekatuz gero, taula hau ateratzen da, magnitudeak zehaztuta (aktiboa, ondare garbia eta pasiboa):



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	67.557.367	%33	49.040.246	%40	18.517.121	%23
Ongintza-sorospen eta lan arloa	66.439.856	%33	40.594.940	%33	25.844.917	%32
Autonomia-erkidegoetako etxeak	1.791.812	%1	1.247.778	%1	544.007	%1
Kultura eta gazteria	23.371.938	%11	13.720.906	%11	9.651.032	%12
Beste batzuk	44.952.360	%22	18.100.173	%15	26.852.187	%33
<b>Guztira</b>	<b>204.113.333</b>	<b>%100</b>	<b>122.704.042</b>	<b>%100</b>	<b>81.409.264</b>	<b>%100</b>

Era berean, guztizko kopuru horren barruan sartzen diren erakundeen magnitude nagusiak likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren arabera taldekatuz (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Tamaina	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Mikro (<300.000€)	15.982.529	%8	11.133.259	%9	4.849.243	%6
Txikiak (300,000-1MM€)	24.133.022	%12	20.039.313	%16	4.093.709	%5
Ertainak (1-5MM€)	75.844.214	%37	46.498.817	%38	29.345.398	%36
Handiak (5-25MM€)	75.517.849	%37	37.394.031	%30	38.123.817	%47
Oso handiak (>25MM€)	12.635.719	%6	7.638.622	%6	4.997.097	%6
<b>Guztira</b>	<b>204.113.333</b>	<b>%100</b>	<b>122.704.042</b>	<b>%100</b>	<b>81.409.264</b>	<b>%100</b>

Horrez gain, Eranskinean, berrikusitako onura publikoko elkarte guztien balantze bateratua agertzen da.

Berrikusitako onura publikoko elkarte guztien baterako emaitzen kontuko magnitude nagusiak emaitzen kontu bateratu honetan aurkezten direnak dira:



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### *Aztertutako onura publikoko elkarteen Galdu-Irabazi Orri Bateratua, 2014 eta 2013ko itxieran (eurotan)*

	2014ko itxiera	2013ko itxiera
Jarduera- gastuak	224.255.968	221.720.003
Jarduera diru-sarrerak	226.285.411	223.135.878
Jardueraren soberakin positiboa	2.029.443	1.415.875
Finantza soberakin negatiboa	-1.359.674	-1.375.156
Ekitaldiko soberakin positiboa	669.769	40.719
Ondare garbira zuzenean aplikatutako diru-sarrera eta gastuak	3.585.371	-2.306.240
Xede fundazionala, aldaketa	441.046	83.978
Beste aldaketa batzuk	1.170.605	1.215.027
<b>ONDARE GARBIA, ALDAKETA GUZTIRA</b>	<b>5.866.791</b>	<b>-966.516</b>

Horrez gain, Eranskinean, berrikusitako onura publikoko elkarte guztien emaitzen kontu bateratua agertzen da.

Gastuak eta diru-sarrerak arestian aipatu den emaitzen kontu bateratuaren barruko erakundeen lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera taldekatuz gero, honako taula hauek ateratzen dira:

Informazio hori bera Elkarteen Erregistroko atal bakoitzaren arabera taldekatuz gero, taula hau ateratzen da, magnitudeak zehaztuta (diru-sarrerak eta gastuak):

Lurralde Historikoa	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Alava/Araba	25.576.372	%11	25.329.705	%11
Bizkaia	124.714.407	%55	127.055.723	%56
Gipuzkoa	76.944.378	%34	74.179.961	%33
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>%100</b>	<b>226.565.389</b>	<b>%100</b>



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Informazio hori bera Elkartein Erregistroan inskribatutako onura publikoko elkartein artean egiaztatu daitezkeen kategoriatan bakoitzaren arabera taldekatuta, taula hau ateratzen da, magnitudeak zehaztuta (diru-sarrerak eta gastuak):

Kategoria	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	111.597.710	%49	109.217.892	%48
Ongintza-sorospen eta lan arloa	61.296.217	%27	62.641.874	%28
Autonomia-erkidegoetako etxeak	671.865	%0	731.055	%0
Kultura eta gazteria	21.234.294	%9	21.681.484	%10
Beste batzuk	32.435.073	%14	32.293.084	%14
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>%100</b>	<b>226.565.389</b>	<b>%100</b>

Azkenik, aztertutako erakundein magnitude nagusiak likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren arabera taldekatuz gero (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Tamaina	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Mikro (<300.000€)	10.060.318	%4	9.978.058	%4
Txikiak (300,000-1MM€)	23.228.829	%10	23.269.521	%10
Ertainak (1-5MM€)	76.423.082	%34	75.164.743	%33
Handiak (5-25MM€)	86.908.455	%38	87.524.154	%39
Oso handiak (>25MM€)	30.614.474	%13	30.628.912	%14
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>%100</b>	<b>226.565.389</b>	<b>%100</b>

Jarraian erakusten da aztertutako onura publikoko elkarte guztien diru-sarrerak izan duten bilakaera, kontuan hartuta kategorien eta likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren araberrako sailkapena:



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Diru- sarrerak 2014	Diru- sarrerak 2013	% Aldak.
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	111.597.710	106.165.603	%5
Ongintza-sorospen eta lan arloa	61.296.217	63.040.967	-%3
Autonomia-erkidegoetako etxeak	671.865	608.147	%10
Kultura eta gazteria	21.234.294	22.006.021	-%4
Beste batzuk	32.435.073	32.765.729	-%1
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>224.586.467</b>	<b>%1</b>

Tamaina	Diru- sarrerak 2014	Diru- sarrerak 2013	% Aldak.
Mikro (<300.000€)	10.060.318	10.077.026	%0
Txikiak (300,000-1MM€)	23.228.829	22.885.164	%2
Ertainak (1-5MM€)	76.423.082	73.236.069	%4
Handiak (5-25MM€)	86.908.455	89.980.694	-%3
Oso handiak (>25MM€)	30.614.474	28.407.514	%8
<b>Guztira</b>	<b>227.235.157</b>	<b>224.586.467</b>	<b>%1</b>

- ✓ Ikusten denez, elkarteetan krisiak eragindako diru-sarreraren murrizketa ez zen agertu 2014ko ekitaldian. 2014ko ekitaldian, **batez besteko diru-sarrerak** hobera egin zuten % 1, 2013ko ekitaldikoekin alderatuta; zehazki, 2014ko ekitaldian batez besteko diru-sarreraren zenbatekoa 1.215.161 euro izan zen; aldiz, 2013ko ekitaldian 1.200.997 izan zen. Horregatik, 2014ko ekitaldiko batez besteko diru-sarreraren kopuruak 2012koetatik hurbil daude; urte hartan, batez besteko diru-sarreraren zenbatekoa 1.226.678 euro izan zen (2013eko ekitaldian diru-sarrerak behera egin zuten % 2, 2012koekin alderatuta).
- ✓ Gastu guztien artean langileria-gastuak nabarmentzen ditugu, beren garrantziagatik; izan ere, gastu guztien % 58 dira eta aplikatu behar den kontabilitate-plana zehaztean eragina daukate, edo areago, "garrantzi ekonomikoa"ren ezaugarria kontuan hartzean ere bai.



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Gastua	%
Gastuak, laguntzetan	%7
Hornidurak	%6
Pertsonaleko gastuak	%58
Kanpo-zerbitzuak	%25
Ibilgetuaren amortizazioa	%3
Finantza-gastuak	%1
<b>Guztira</b>	<b>%100</b>

*Gastu aurrekontuaren epigrafe bakoitzeko gastuak*

Emaitzen kontuak aurkeztu dituzten berrikusitako erakunde guztietako (189 erakunde) langileria-gastuak taldekatuz (laginetik kendu dira guztirako kalkulua egiteko ahulguneak dauzkaten bi erakundeak), honako taula hauek lortzen dira lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera:

Lurralde Historikoa	Pertsonal gastua	%
Alava/Araba	13.361.606	10%
Bizkaia	73.233.422	56%
Gipuzkoa	45.245.008	34%
<b>Guztira</b>	<b>131.840.036</b>	<b>100%</b>

Kategoria	Pertsonal gastua	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	75.377.500	57%
Ongintza-sorospen eta lan arloa	29.826.358	23%
Eskualde-etxeak	31.029	0%
Kultura, gazteria eta kirola	6.689.179	5%
Beste batzuk	19.915.969	15%
<b>Total</b>	<b>131.840.036</b>	<b>100%</b>

- ✓ 2014ko ekitaldian, erakunde horietan 4.078 pertsona zeuden enplegatuta (2013ko ekitaldian 3.714 pertsona).

Tamaina	Langileak, guztira	Langileak, batez beste, entitate bakoitzeko	Pertsonaleko gastua	Entitateak, guztira	Soldata kostua, batez beste, (Gizarte Segurantzza barne)
Mikro (<300.000€)	132	1	3.385.892	101	25.589
Txikiak (300,000-1MM€)	428	11	12.092.976	39	28.239
Ertainak (1-5MM€)	1.215	32	39.814.057	38	32.763
Handiak (5-25MM€)	1.834	183	54.824.244	10	29.889
Oso handiak (>25MM€)	468	468	21.722.868	1	46.416
	<b>4.078</b>		<b>131.840.036</b>	<b>189</b>	<b>24.637</b>

Batez besteko plantillari dagokionez, diferentziarik handiena 5 milioi eurotik gorako aurrekontua duten erakundeetan dago. Multzo horretan 150 langiletik gorako batez besteko plantilla duten 11 erakunde (berrikusitakoaren % 5,8) daude, eta horien artean 7



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

gaixotasun edo ezgaitasun bat duten pertsonak artatzen dituzten elkarteak dira. 11 erakunde horietan 2.302 pertsona daude enplegatuta (guztien % 56,4).

2014ko abenduaren 31n, Eustatek emandako datuen arabera, EAEn 843.816 pertsona zeuden enplegatuta. Beraz, data hartan enplegua zuten pertsonen % 0,5 ari ziren lanean Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteen sektorean.

- ✓ Diru-sarrera guztien artean Administrazio Publikoen ustiapenerako emandako diru-laguntzak nabarmentzen ditugu, beren garrantziagatik; izan ere, gastu guztien % 46 dira eta aplikatu behar den kontabilitate-plana zehaztean eragina daukate, edo areago, “garrantzi ekonomikoa”ren ezaugarria kontuan hartzean ere bai.

Diru-sarrera	%
Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak	%27,6
Ustiapenerako diru-laguntza publikoak	%46,2
Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste sarrera batzuk	%22,4
Finantza diru-sarrerak	%0,4
Beste batzuk	%3,5
<b>Guztira</b>	<b>%100</b>

*Diru-sarrera aurrekontuaren epigrafe bakoitzeko sarrerak*

Esan behar da “Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak” eta “Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste diru-sarrera batzuk” epigrafeetan, halaber, zati batean, Administrazio Publikoek emandako diru-sarrerak sartzen direla, kasu honetan faktura, hitzarmen, kontratu eta zerbitzugintzarako itun gisa.


**Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztatpena. 2014ko ekitaldia**

Kategoria	Kuotak, dohaintzak, % aportazioak eta promozioak	Ustiapeneko diru-laguntza publikoak	%	Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste diru-sarrera batzuk	%	Finantza diru- sarrerak	%	Beste batzuk	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	28.543.891,81	48.922.815,97	%26	30.939.341,08	%28	135.280,02	%0,1	3.056.381,13	%3
Ongintza-sorospen eta lan arloa	21.054.561,97	30.672.898,44	%34	5.562.613,27	%9	301.343,22	%0,5	3.704.799,78	%6
Autonomia-erkidegoetako etxeak	244.894,64	163.168,19	%36	255.498,82	%38	6.271,05	%1	2.031,92	%0,3
Kultura eta gazteria	9.432.817,49	5.824.061,10	%44	5.249.359,58	%25	334.235,98	%2	393.819,39	%2
Beste batzuk	3.376.086,72	19.334.959,44	%10	8.865.229,42	%27	172.616,35	%1	686.180,71	%2
<b>GUZTIRA</b>	<b>62.652.252,63</b>	<b>104.917.903,14</b>	<b>%28</b>	<b>50.872.042,17</b>	<b>%22</b>	<b>949.746,62</b>	<b>%0,4</b>	<b>7.843.212,93</b>	<b>%3</b>
Biderkatzailea	0,60	1,00		0,48		0,01		0,1	

Tamaina	Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak	%	Ustiapeneko diru-laguntza publikoak	%	Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste sarrera batzuk	%	Finantza diru- sarrerak	%	Beste batzuk	%
Mikro (<300.000€)	4.603.798,31	%46	3.998.469,10	%40	1.068.933,54	%11	36.176,11	%0,4	352.940,45	%4
Txikiak (300.000-1MM€)	7.494.814,39	%32	12.334.205,58	%53	2.510.690,50	%11	323.915,31	%1	565.203,27	%2
Ertainak (1-5MM€)	17.141.620,14	%22	47.641.063,41	%62	7.601.755,63	%10	127.825,56	%0,2	3.910.817,62	%5
Handiak (5-25MM€)	32.858.338,03	%38	40.215.825,95	%46	10.986.714,94	%13	460.309,05	%1	2.387.266,81	%3
Oso handiak (>25MM€)	553.681,76	%2	728.339,10	%2	28.703.947,56	%94	1.520,59	0,0%	626.984,78	%2
<b>GUZTIRA</b>	<b>62.652.252,63</b>	<b>%28</b>	<b>104.917.903,14</b>	<b>%46</b>	<b>50.872.042,17</b>	<b>%22</b>	<b>949.746,62</b>	<b>%0,4</b>	<b>7.843.212,93</b>	<b>%3</b>
Biderkatzailea	0,6		1		0,5		0,01		0,1	





### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kategoria	Gastuak, laguntzetan	%	Pertsonaleko gastuak	%	Kanpo-zerbitzuak	%	Finantza gastuak	%	Hornidurak	%	Ibilgetuaren amortizazioa	%	Beste batzuk	%
Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak	514.515,34	%0,5	75.377.499,72	%69	22.606.551,47	%21	175.583,82	%0,2	7.548.895,83	%7	2.916.584,95	%3	78.260,98	%0,1
Ongintza-sorospen eta lan arloa	13.963.302,14	%22	29.826.358,49	%48	14.436.532,47	%23	1.964.809,64	%3	1.231.372,11	%2	1.150.208,48	%2	69.290,66	%0,1
Autonomia-erkidegoetako etxeak	10.326,00	%1	31.029,43	%4	593.912,67	%81	7.956,72	%1	5.228,68	%1	82.231,82	%11	369,22	%0,1
Kultura eta gazteria	648.619,14	3%	6.689.179,32	31%	10.966.866,24	%51	23.528,84	%0,1	2.793.292,20	%13	541.796,53	%2	18.202,00	%0,1
Beste batzuk	1.624.106,15	5%	19.915.968,77	%62	7.907.622,27	%24	137.541,48	%0,4	1.038.824,06	%3	1.612.006,27	%5	57.014,86	%0,2
<b>TOTAL</b>	<b>16.760.868,77</b>	<b>%7</b>	<b>131.840.035,73</b>	<b>%58</b>	<b>56.511.485,12</b>	<b>%25</b>	<b>2.309.420,50</b>	<b>%1</b>	<b>12.617.612,88</b>	<b>%6</b>	<b>6.302.828,05</b>	<b>%3</b>	<b>223.137,72</b>	<b>%0,1</b>


Tamaina	Gastuak, laguntzetan	%	Pertsonaleko gastuak	%	Kanpo zerbitzuak	%	Finantza gastuak	%	Hornidurak	%	Ibilgetuaren amortizazioa	%	Beste batzuk	%
Mikro (<300.000€)	1.283.977,76	%13	3.385.892,06	%34	4.305.141,42	%43	47.171,8	%0,5	484.132,70	%5	455.305,61	%5	16.437,09	%0,2
Txikiak (300.000-1MM€)	3.806.859,10	%16	12.092.975,72	%52	5.974.762,54	%26	55.150,98	%0,2	865.545,55	%4	448.346,25	%2	25.881,07	%0,1
Ertainak (1-5MM€)	10.854.311,46	%14	39.814.056,66	%53	18.491.243,75	%25	360.882,89	%0,5	4.097.627,68	%5	1.442.016,33	%2	104.603,87	%0,1
Handiak (5-25MM€)	725.681,90	%1	54.824.243,53	%63	25.068.869,66	%29	1.797.432,76	%2,1	1.778.103,53	%2	3.253.607,33	%4	76.215,69	%0,1
Oso handiak (>25MM€)	90.038,55	%0,3	21.722.867,76	%71	2.671.467,75	%9	48.782,07	%0,2	5.392.203,42	%18	703.552,53	%2	0,00	0%
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.760.868,77</b>	<b>%7</b>	<b>131.840.035,73</b>	<b>%58</b>	<b>56.511.485,12</b>	<b>%25</b>	<b>2.309.420,50</b>	<b>%1</b>	<b>12.617.612,88</b>	<b>%6</b>	<b>6.302.828,05</b>	<b>%3</b>	<b>223.137,72</b>	<b>%0,1</b>



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- ✓ Erakundearen tamainaren arabera, diru-laguntza publikoekiko mendekotasuna aldatzen da. Jarraian erakusten diren tauletan ikusten denez, "mikroerakundeak" dira administrazioen mendean gutxien dauden erakundeak. Hala ere, "ertainak" deitzen diren erakundeak (urteko gastuak 1 eta 5 milioi euro bitartekoak) administrazio publikoen mendean daude neurri handian, beren diru-sarreraren % 62 administrazio horietatik datorrelako.

Lehenago ikusi dugunez, Administrazio Publikoek emandako ustiapenerako diru-laguntzak 2014ko ekitaldiko diru-sarrera guztien % 46 dira, aztertutako onura publikoko erakunde guztietarako. Era berean, onura publikoko elkarteak gai dira iturri diferente ugaritatik datozen diru-sarrerak sortzeko, adibidez ondaretik datozen diru-sarrerak (finantza-sarrerak), kuota, dohaintza, elkarlan eta antzekoengatiko diru-sarrerak, zerbitzugintza eta salmentengatiko diru-sarrerak eta merkataritzako beste diru-sarrera batzuk eta abar.







## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteen diru-sarreraren egituraren ezaugarria, beraz, diru-sarrera publikoekiko mendekotasun handia da.

Alde horretatik, Babesletzaren aurrean kontuak eman dituzten erakundeek jasotako diru-sarrerak aztertuz ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteetako finantzaketan ustiapenerako diru-laguntza publikoek garrantzi handia dutela elkarteetako diru-sarreraren aurrekontuan. Era berean, erakunde publikoei ematen zaizkien zerbitzuek ere ere garrantzi handia dute, batik bat hitzarmen, kontratu eta antzekoen forman.

2014ko ekitaldian, Administrazio Publikoek emandako diru-sarrerak (diru-laguntzak, hitzarmenak, kontratak eta antzekoak) honela banatu ziren:




*Onura publikoko elkarteetako diru-sarrera publikoetako jatorria*




## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### Onura publikoko elkarteen diru-sarreraren publikoen jatorria, sail bakoitzeko



### Onura publikoko elkarteen diru-sarreraren publikoen jatorria, tamainaren arabera (gastua)



Aurreko bi grafikoetan ikusten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteen artean nagusi dira foru-aldundietatik datozen diru-sarrerak publikoak.


Administrazio Publikoetatik datozen diru-sarrerak batik bat I+G+B arloarekin lotutako helburuetarako erabili dira, alde batetik, eta irakaskuntza eta prestakuntzarekin lotutako helburuetarako, bestetik, honako grafiko honetan agertzen denez:




## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### Diru-sarrera publikoen aplikazioa

- Gaixotasun edo ezintasunengatiko kaltetuak
- Ongintza-sorospen eta lan arloa
- Eskualde-etxeak
- Kultura, gazteria eta kirola
- Beste batzuk



- Mikro-entitateak
- Txikiak
- Ertainak
- Handiak
- Oso handiak





## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak, 2014

Honako taula hauetan ikusten denez, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten onura publikoko 3 elkarteek, metatuta, 9 milioi euroko gastu-aurrekontua daukate, eta 2014ko ekitaldiaren amaieran, beren aktiboen zenbatekoa ia-ia 10 milioi euro zen.

EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak 2014	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Partaidetza publiko gehiengodun duten eta ezein administratziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	6.081.310	%62	5.525.549	%59	7.309.077	%73	2.259.428	%59	5.049.649	%82
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	3.790.902	%38	3.791.129	%41	2.656.797	%27	1.580.764	%41	1.076.033	%18
<b>Guztira</b>	<b>9.872.212</b>		<b>9.316.678</b>		<b>9.965.874</b>		<b>3.840.192</b>		<b>6.125.682</b>	
<b>%</b>	<b>%4</b>		<b>%4</b>		<b>%5</b>		<b>%3</b>		<b>%8</b>	
<b>Onura publikoko elkarteak, guztira.2014</b>	<b>227.235.157</b>		<b>226.565.389</b>		<b>204.113.333</b>		<b>122.704.042</b>		<b>81.409.264</b>	



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### VI. KAPITULUA: KONTUAK AURKEZTU DITUZTEN ONURA PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA-BATZORDEEN DATUAK AZTERTZEA, SEXUEN ARABERA BANATUTA

Memoria honetan lehenengo aldiz aztertu dira onura publikoko elkarteek sexuaren arabera berezita emandako datuak; beren zuzendaritza-batzordeek sexuaren arabera duten osaerari buruzko datuak, hain zuzen ere.

Kapitulu honen helburu nagusia da emakumeek eta gizonak Euskadin onura publikoko elkarteetan zuzendaritza-batzordeetan ordezkariak izateko dagokionez duten egoera aztertzea. Horri esker konparazioa egin ahal izango dugu 2014ko ekitalditik aurrera; horrela, bilakaera ikusi ahal izango dugu, baita neurri espezifikoak bultzatu behar diren ere.

Onura publikoko elkarteetan azterketa honen testuingurua ezartze aldera, erreferentzia gisa hartuko dugu emakumeek enpresetan erabakiak hartzeko esparruetan duten presentzia, baita finantza-arloan eta sindikatuen arloan duten presentzia ere; hala, gizarte-bizitzan EAEko elkarteetan eta hirugarren sektorearen bitartez duten partaidetza aztertzen jarraituko dugu.

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifren 2015eko txostenak<sup>3</sup> dioenez, *“Euskadiko **sindikatu nagusietatik**, LABek soilik du emakume bat idazkari nagusi gisa. Gainontzeko sindikatuek gizon bat dute zuzendaritzan eta **batzorde exekutiboetan dauden emakume kopurua % 50aren azpitik dago**”*.

*Euskadin egoitza duten finantza-erakundeetako erabaki-esparruetan, pertsona gehienak gizonak dira. Euskadiko lau erakunde horietako presidentek gizonak dira, eta **haien erabaki-organo garrantzitsuetan, batez beste % 22,6 emakumeak dira**. Fiare da, bazkide kontseiluan, hau da, haren organo nagusian, emakume gehien dituena, ia % 31. Laboral Kutxako ordezkartzan emakumeak % 11 besterik ez dira.*

*IBEX 35en kotizatzen duten euskal enpresetako (BBVA, GAMEESA eta IBERDROLA) erabaki-organoetan ere, egoera oso antzekoa da emakume kopuruari dagokionez. Hiru erakundeetan, presidentek gizonak dira eta administrazio-kontseiluan edo zuzendaritza nagusian, emakumeen portzentajea % 30aren azpitik dago.*

EAEen emakumeek eta gizonak elkarteetan parte hartuz daukaten gizarte-bizitzari dagokionez<sup>4</sup>, *“EAEen 6 urte edo gehiago daukaten hamar pertsonatatik lau elkarte edo sozietateren bateko kidea da. Horietatik gehienak gizonak dira (% 53,4) eta % 46,6 emakumeak.*

- **Gizonak:** % 67,2 dira kirol erakundeetan eta % 58,7 erakunde politikoetan, sindikaletan eta lanbide-erakundeetan, hurrenez hurren.
- **Emakumeak,** aldiz, gehiago dira hezkuntza-elkarteetan (% 63,2), erlijio-elkarteetan (% 60,4), garapenerako lankidetzaren erakundeetan (% 58,8) eta gizarte-laguntzako erakundeetan (%56,9).

<sup>3</sup> [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjuntos/zifrak\\_2015.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2015.pdf)

<sup>4</sup> Zifrei buruzko 2015eko txostenaren arabera, EUSTATen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Bizi-baldintzen estatistikatik (2014), eta Denbora Aurrekontuen Inkestatik (2013) aurrera



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- **Generoen arteko oreka:** Generoen arteko nolabaiteko oreka dagoen elkarte eta erakundeak auzo-elkarteak, giza eskubideen elkarteak eta bestelako elkarteak dira.”

Bestalde, EAEko biztanleriaren % 16,2k borondatezko laguntza eskaintzen du elkarte eta erakundeetan, eta horietatik % 47 emakumeak dira, eta % 53 gizonak.

- **Borondatezko laguntza ematen duten emakumeek** elkarte erlijiosoetan (% 73,3), garapenerako lankidetzak-erakundeetan (% 68,0) eta gizarte-laguntzako erakundeetan eskaintzen dute. Generoen alde emakumezkoen rol tradizionalak baldintzatuta egon daiteke.
- **Borondatezko lanak egiten dituzten gizonak**, aldiz, prebalentzia handiagoa izaten jarraitzen dute kirol-elkarteetan (% 69,3), erakunde politikoetan, sindikaletan eta lanbide-erakundeetan (% 61,6). Gainera, kasu honetan borondatezko lanak egiten dituzten kopurua emakumeena baino askoz handiagoa da.

2015eko azaroko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren<sup>5</sup> arabera, sektore honetako erakundeen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonen % 52,95 emakumeak dira. Dena dela, emakumeen erakunde espezifikoak azterketatik kanpo utziz gero –laginaren % 10,7 dira–, proportzioa % 47,95ra jaisten da. **Gobernu-organoetan, emakumeen ratioa nabarmen txikiagoa da fundazioetan (karguen % 33,46 dira) eta “fundazioa edo elkarte ez diren beste figura juridiko batzuk” dituzten erakundeetan (karguen % 40,95). Ildo beretik, emakumeek pisu txikiagoa dute aurrekontu-bolumen handiagoa duten erakundeen organoetan (karguen % 40,13 dira milioi eta erdi eurotik gorako erakundeetan).**

Emakumeek gizonak baino presentzia handiagoa dute eremu hauetako erakundeen gobernu-organoetan: **Sozial-Zeharkakoa (karguen % 58,35 betetzen dute), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (karguen % 57,73) eta Osasuna (karguen % 52,56).**

Halaber, erakundeen bolumen mardul batek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten kudeaketa-ekimenak gauzatzen ditu (% 67,29).

% 21,82k berdintasun plana dute eta % 45,47k ez dute berez berdintasun planik, hau da, “Idatziz ez, baina berari lotutako ekintzak gauzatzen ditugu”.

Ikusi dugun bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten ekintzek garapen gradu nabaria dute sektorean. Dena dela, datu batzuek agerian uzten dute beharrezkoa dela bide horretan aurrera egiten jarraitzea. Erakunde hauek osatzen dituzten pertsonen kapituluak, islatuta geratu da emakumeak gehiago direla sektorean, figura juridikoa, erakundearen bolumen ekonomikoa eta jardueraren eremua zeinahi direlarik ere. **Batez beste, emakumeak boluntarioen % 56,52 dira, eta kontratatutako pertsonen % 68,24.**

<sup>5</sup> [http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825\\_2\\_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf](http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825_2_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf)





## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Hala eta guztiz ere, **emakumeek erakundeen gobernu-organoetan duten presentzia nabarmen txikiagoa da eta ez dator bat emakumeek boluntarioen eta soldatapeko pertsonen artean duten pisuarekin**: batez beste, emakumeak sektoreko gobernu-organoetan karguak dituzten pertsonen % 52,95 dira, eta erakundeen aurrekontua igotzen den neurrian asko jaisten da ehuneko hori.

Erakundeen % 11,37k gizon eta emakumeen proportzio berdina dute beren gobernu-organoetan. Erakundeen % 8,67k gizonez soilik osatutako gobernu-organoa dute, eta % 17,28k emakumez soilik osatutakoa. Dena dela, azken datu hori % 7,35era murrizten da emakumeen erakunde espezifikoak kontatzen ez badira.

Emakumeak gutxiengo dira erakundeen % 42,4tan, eta gehiengo patronatu-batzordeen edo zuzendaritza-batzordeen % 36,3tan (emakumeen erakunde espezifikoak kanpo utzita).

Azterketa gizarte-arloan kokatuta, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak 41.3 artikuluan jasotzen ditu administrazio publikoek arlo horretan dituzten betebeharrak:

*41. artikulua. Elkartegintzaren gizarte-balioa eta sustapena.*

*2. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek elkartegintza sustatuko dute eta interes orokorreko xedeak dituzten elkarten garapena bultzatuko dute, bai eta elkarte horien batasunen, federazioen eta konfederazioena ere, betiere herri-botereekiko duten askatasuna eta autonomia errespetatuz.*

*Era berean, herri-administrazioek ekintza positiboak sustatuko dituzte, hartara emakumei eta gizonei elkarten alor eta gune orotan modu parekidean izatea eta parte hartzea eragozten dieten oztopoak kentzeko.*

Gainera, martxoaren 2ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, honako hau jasotzen du elkarteei eta erakundeei buruz:

*24. artikulua.– Elkarteak eta erakundeak.*

*Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeoi adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.*

*2.– Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.*

Lege-esparrua ikusita, gure asmoa da onura publikoko elkarten egoera zein den jakitea, ikusteko ea emakumeek eta gizonek ordezkaritza orekatua daukaten erabakiak hartzeko organoetan, kasu honetan zuzendaritza-batzordeetan.



## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

4/2005 Legearen 3. artikulua dioenez, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkariak dutenean, gutxienez.

Beraz, memoria honetan ordezkariak orekatua daukaten zuzendaritza-batzordeak aztertuko ditugu, hau da, emakumeen eta gizonen ordezkariak % 40 eta % 60 bitartean duten zuzendaritza-batzordeak. Zuzendaritza-batzorde maskulinizatuetan, hain zuzen, batzordekideen % 40 baino gutxiago dira emakumeak, eta feminizatuetan, aldiz, % 60 baino gehiago.

Ezeren aurretik argitu behar dugu honako lagin hau aztertu dugula: 2014ko ekitaldian, betebeharra duten 231 elkartetatik, onura publikoko 186 elkarte kontuak aurkeztu zituzten, hau da, % 80,52k. 186 elkarte horietatik, zuzendaritza-batzordea sexuen arabera bereizita daukagu 182 elkartetan, hau da, guztien artean % 78,8tan. Kapitulu honetan azterketa 182 elkarte horietan egin da.

Kapitulu honetan zuzendaritza-batzordeek sexuaren arabera duten banaketa aztertuko dugu, 3 aldagai oinarri hartuta. Honako hauek dira aldagaiak: xedea, garrantzi ekonomikoa, eta azkenik, ekitaldian jasandako gastua.

Aztertutako lehen adierazlea emakumeek zuzendaritza-batzordeetan duten presentzia da. Aztertutako onura publikoko 182 elkarte artean, 16 erakundetan ez dago emakumerik gobernu-organoetan, guztien artean % 9tan:

<b>Aztertutako onura publikoko elkarte artean zuzendaritza-batzordeetan emakumeen presentzia dutenen kopurua. Absolutuak eta %, 2014.</b>		
<b>Erakundeak, guztira</b>	<b>Gizonak eta emakumeak</b>	<b>Gizonak bakarrik</b>
182	166	16
% 100	% 91	% 9

Beraz, onura publikoko 16 elkartetan zuzendaritza-batzordeak % 100ean maskulinizatuta daude

### Onura publikoko elkartearen xedearen arabera

Onura publikoko elkarte zuzendaritza-batzordeek sexuaren arabera duten banaketa aztertu ahal izateko, xedearen aldetik kontuan hartuko dugu txosten honetan aipatu den sailkapena, egiten duten jardueraren izaera edo xedearen edo lotutako taldearen ezaugarrien arabera:

- a) Lehenengo kategoria: Gaixotasun edo ezgaitasun bat duten pertsonak
- b) Bigarren kategoria: Laguntza eta ongintza-erakundeak eta lan arloko erakundeak
- c) Hirugarren kategoria: Autonomia-erkidegoetako etxeak
- d) Laugarren kategoria: Kultur eta gazteria arloko erakundeak
- e) Bosgarren kategoria: Bestelakoak



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Aztertutako onura publikoko elkarteen gobernu-organoen banaketa, sexuen arabera, xedea kontuan hartuta. Absolutuak, % a eta generoen arteko aldea. 2014						
Kategoria	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea <sup>6</sup>
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Gaixotasun edo ezgaitasun bat duten pertsonak	509	220	% 43	289	% 57	14
Laguntza- eta ongintza-erakundeak eta lan arloko erakundeak	432	234	% 54	198	% 46	- 8
Autonomia-erkidegoetako etxeak	179	140	% 78	39	% 22	- 56
Kultur eta gazteria arloko erakundeak	219	145	% 66	74	% 34	- 32
Bestelakoak	190	130	% 68	60	% 32	- 37
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.529</b>	<b>869</b>	<b>% 57</b>	<b>660</b>	<b>% 43</b>	<b>- 14</b>

Ondorio orokorrak hauek dira: aztertutako elkarteen zuzendaritza-batzordeko kide diren 1.529 pertsonen artean, emakumeak % 43 dira. Generoen arteko aldea ehuneko 14 puntukoa da.

Elkartearen xedearen arabera, zuzendaritza-batzordeetan emakumeen presentzia handiena da gaixotasun edo ezgaitasun bat dutenen pertsonen elkarreetan eta laguntza eta ongintza-elkarreetan eta lan arloko elkarreetan, hurrenez hurren % 57 eta % 46.

Haietatik ehuneko 10 puntura baino gehiagora daude kultur eta gazteria arloko elkarteak eta bestelako elkarteak. Emakumeen presentziarik txikiena dutenak autonomia-erkidegoetako etxeen elkarteak dira (% 22). Horrek esan nahi du generoen arteko aldea % 56 dela.

Honako taula honetan ikus dezakegu elkarte horien artean zenbatek betetzen duten zuzendaritza-batzordeetan ordezkariak orekatuaren printzipioa:

<sup>6</sup> GENEROEN ARTEKO ALDEA: Aldagai baten kategorian emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoaren edo tasaren artean dagoen aldea da. Aldagai batean emakumezkoen ehuneko edo tasa bati aldagai horretan bertan gizonezkoen ehuneko edo tasa kenduta kalkulatzen da. Emaizta hori ehuneko puntutan neurtzen da. Berdintasunetik hurbilago egongo gara generoen arteko aldea zerotik hurbilago dagoenean. (Egitura-funtsen eta kohesio-funtsaren bidez finantzaketa lagunduta duten eragiketen esparruan genero-arrailak aztertzeke estatistika-iturrien eta adierazleen gida. Emakumearen Erakundea)



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

**Aztertutako onura publikoko elkarten zuzendaritza-batzordeak, sexuen ordezkartzaren arabera, xedea kontuan hartuta. Absolutuak eta %a. 2014.**

Kategoria	Zuzendaritza-batzorde maskulinizatua	%	Ordezkaritza orekatua duen zuzendaritza-batzordea	%	Zuzendaritza-batzorde feminizatua	%	Guztira
Gaixotasun edo ezgaitasun bat duten pertsonak	13	% 22	17	% 29	29	% 49	59
Laguntza eta ongintza-erakundeak eta lan arloko erakundeak	25	% 38	20	% 30	21	% 32	66
Autonomia-erkidegoetako etxeak	12	% 80	3	% 20	0	% 0	15
Kultur eta gazteria arloko erakundeak	17	% 68	7	% 28	1	% 4	25
Bestelakoak	11	% 65	3	% 18	3	% 18	17
<b>GUZTIRA</b>	<b>78</b>	<b>% 43</b>	<b>50</b>	<b>% 27</b>	<b>54</b>	<b>% 30</b>	<b>182</b>

Ondorio orokor hau ateratzen da: ikusten denez, zuzendaritza-batzordeetan emakumeak dauzkaten erakundeen artean % 27k soilik dute ordezkartza orekatua.

Gainera, elkarten % 43k beren zuzendaritza-batzordeetan ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik, hau da, maskulinizatuta daude. Kasuen % 30ean, emakumeen ordezkartza % 60tik gorakoa da, hau da, gobernu-organo feminizatuak dira.

Elkarteen xedeari dagokionez, aipatu diren bost moten arabera honako ondorio hauek aterako lirateke:

- Lehenengo kategoria: Gaixotasun edo ezgaitasunen bat duten pertsonak: % 22k ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik, hau da, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak dira.
- Bigarren kategoria: Laguntza eta ongintza-erakundeak eta lan arloko erakundeak: % 38k ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik, hau da, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak dira.
- Hirugarren kategoria: Autonomia-erkidegoetako etxeak % 80k ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik, hau da, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak dira.
- Lauugarren kategoria: Kultur eta gazteria arloko erakundeak: % 68k ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik, hau da, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak dira.



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- Bosgarren kategoria: Bestelakoak: % 65ek ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturik, hau da, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak dira.

### Onura publikoko elkartearen garrantzi ekonomikoaren arabera

Uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuak, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, ezartzen duen garrantzi ekonomikoaren arabera, onura publikoko elkarte zuzendaritza-batzordeek sexuen arabera daukaten banaketa aztertu dugu honako taula honetan:

Aztertutako zuzendaritza-batzordeen sexuaren arabera duten banaketa, garrantzi ekonomikoaren arabera. Absolutuak,%a eta generoen arteko aldea. 2014						
Garrantzia	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Ekonomia aldetik garrantzitsua	465 (% 31)	290	% 62	175	% 38	- 25
Garrantzirik gabea	1064 (% 69)	579	% 54	485	% 46	- 9
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.529</b>	<b>869</b>	<b>% 57</b>	<b>660</b>	<b>% 43</b>	<b>- 14</b>

182 erakunde horien gobernu-organoak osatzen dituzten 1.529 pertsonen artean, % 69 ekonomia aldetik garrantzirik ez duten elkarteetan biltzen dira, eta hain zuzen ere elkarte horietan biltzen dira emakume gehienak, guztien % 46.

Ekonomia aldetik garrantzitsuak diren erakundeetan, zuzendaritza-batzordeko kideen % 62 dira gizonak. Hori da generoen arteko alderik nabarmenena, ehuneko 25 puntukoa da.

Honako taula honetan, ateratzen den lehenengo ondorioa hau da: 2014ko ekitaldian aztertutako 182 erakundeen artean, 51 ekonomia aldetik garrantzitsuak dira, eta horietatik, % 53k (27) zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak daukate, garrantzirik gabea den % 39ren aldean (131 elkarteren artean 51).



### Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Aztertutako onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeak, garrantzi ekonomikoaren eta sexuen ordezkariaren arabera. Absolutuak eta %. 2014							
Garrantzia	Zuzendaritza-batzorde maskulinizatua	%	Ordezkaritza orekatua duen zuzendaritza-batzordea	%	Zuzendaritza-batzorde feminizatua	%	Guztira
Ekonomia aldetik garrantzitsua	27	% 53	9	% 18	15	% 29	51
Garrantzirik gabea	51	% 39	41	% 31	39	% 30	131
<b>GUZTIRA</b>	<b>78</b>	<b>% 43</b>	<b>50</b>	<b>% 27</b>	<b>54</b>	<b>% 30</b>	<b>182</b>

Gainera, ikusten denez, ekonomia aldetik garrantzirik ez daukaten erakundeek % 31k ordezkari orekatua daukaten zuzendaritza-batzordeak daukate, eta % 30k zuzendaritza-batzorde feminizatuak; aldiz, ekonomia aldetik garrantzitsuak direnetan, zuzendaritza-batzordeek % 18 soilik daude orekatuta, baina feminizatuen ehunekoa antzekoa da (% 29).

#### Erakundearen tamainaren arabera, ekitaldian jasandako gastua kontuan hartuta

Ikusten denez, elkarteek tamainak, jasandako gastua kontuan hartuta, ez dauka zuzenki proportzionala den harremanik zuzendaritza-batzordeen sexuen arabeko banaketan, honako taula honetan ikusten denez:

Aztertutako onura publikoko elkarteek banaketa, sexuen arabera, erakundearen tamaina kontuan hartuta. Absolutuak, %a eta generoen arteko aldea. 2014						
Tamaina <sup>7</sup>	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Mikro	759	414	% 55	345	% 45	-9
Txikiak	317	172	% 54	145	% 46	-9
Ertainak	345	224	% 65	121	% 35	-30
Handiak	94	52	% 55	42	% 45	-11
Oso handiak	14	7	% 50	7	% 50	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.529</b>	<b>869</b>	<b>% 57</b>	<b>660</b>	<b>% 43</b>	<b>-14</b>

<sup>7</sup> Mikroerakundeak: ekitaldian guztira 300.000 eurotik gorako gastua izan dutenak.  
Txikiak: ekitaldian 300.000 euro eta milioi bat euro bitarteko gastua izan dutenak  
Ertainak: 1 eta 5 milioi euro artean  
Handiak: 5 eta 25 milioi euro artean  
Oso handiak: urtean 25 milioitik gorako gastu-aurrekontua izan dutenak.



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Onura publikoko elkarteen artean zuzendaritza-batzordeetan emakumeen presentzia txikiena dutenak ertainak dira, % 35; horien atzetik doaz mikroerakundeak eta handiak 10 puntura (% 45); txikiak 11 puntura (% 46) eta oso handiak; azken horietan emakumeen presentzia % 50ekoa da.

Beraz, generoen arteko aldea % 30ekoa da ertainetan; oso handietan, berriz, desagertu egiten da.

Ordezkaritza orekatua betetzen duten ala ez, hurrengo taulan ikus daitekeenez, mikroerakunde diren onura publikoko elkarteen % 38k zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak daukate. Txikiak, ertainak eta handiak zuzendaritza-batzorde maskulinizatuen ehuneko handiagoa daukate, eta handien kasuan % 26ra heltzen da.

**Aztertutako onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeak, jasandako gastuaren eta sexuen ordezkariaren arabera. Absolutuak eta %a. 2014**

Tamaina	Zuzendaritza-batzorde maskulinizatua	%	Ordezkaritza orekatua duen zuzendaritza-batzordea	%	Zuzendaritza-batzorde feminizatua	%	Guztira
Mikro	36	% 38	29	% 31	30	% 32	95
Txikiak	17	% 45	11	% 29	10	% 26	38
Ertainak	20	% 51	8	% 21	11	% 28	39
Handiak	5	% 56	1	% 11	3	% 33	9
Oso handiak	0	% 0	1	% 100	0	% 0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>78</b>	<b>% 43</b>	<b>50</b>	<b>% 27</b>	<b>54</b>	<b>% 30</b>	<b>182</b>

Ordezkaritza orekatua daukaten zuzendaritza-batzordeei dagokienez, dagoen erakunde oso handi bakarrak ordezkari orekatua dauka; gainerakoetan, mikroerakundeek daukate zuzendaritza-batzorde orekatuen kopururik handiena, % 31, baina oso hurbil daukate erakunde txikiak (% 29). Ertainak sexuen aldetik orekatutako zuzendaritza-batzordeen % 21 besterik ez dute, eta handiak % 11.

Zuzendaritza-batzorde feminizatuei dagokienez, handiak eta mikroak hurrenez hurren % 33ra eta % 32ra heltzen dira, eta horien atzetik oso hurbil doaz ertainak eta txikiak: hurrenez % 28 eta % 26 hurrenez hurren.





## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

### **ONDORIOAK**

2014ko ekitaldiko kontuak emateari buruzko espedientearen barruan ekarritako agiriak aztertu eta berrikusteko egin dugun lanean, nabarmentzekoak diren egoera batzuk aurkitu ditugu:

- 2014ko ekitaldian, betebeharra zuten 231 onura publiko elkarteetatik 186k soilik aurkeztu zituzten kontuak, hau da, % 80,52k. Modu berean, 2013ko ekitaldian 223 onura publiko elkarteetatik 186k ere aurkeztu zituzten kontuak, %83,4k. 2012, 2011 eta 2010 ekitaldietan behartutako entitateen %80k, %89ak eta %87k aurkeztu zituzten urteko kontuak, hurrenez hurren.
- Txosten honen datan, kontuak aurkezten dituzten erakundeen % 7k gutxi gorabehera bitarteko elektronikoak erabili zituzten (fundazioen %25ek aurkeztu zituzten urteko kontuak bide elektronikoa erabilita).
- Onura publikoko elkarteen % 16ek euskara erabiltzen dute Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko. Hala ere, kontuak emateari buruzko agiriak euskaraz fundazioen % 4k soilik aurkezten dituzte.
- Berrikusitako onura publikoko elkarteen kontu-emateetan gehienetan errepikatu den ahulgunea da memorian gutxieneko edukia ez barneratzea; horien artean nabarmentzekoa diru-sarrerak Estatutuetan ezarritako xedera aplikatu izana jakinaraztearena. Zehazki, agiriak konpontzeko errekerimendua jaso zuten lehen 92 onura publikoko elkarteetatik 35ek –% 38– honi buruzko oharra jaso zuten lehen instantzian, diru-sarrerak zegozkion xedeetarako erabiltzeari buruzko agiria falta zutela adieraziz. Era berean, igorritako 92 errekerimenduetatik 33tan (% 36) gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari buruzko informazio-eskaera jaso zen.
- EAEko sektore publikoan eta erakunde partaidetuetan 3 onura publikoko elkarte daude. 2014ko ekitaldian, erakunde horien ondare garbia ia 4 milioi eurokoa izan da, eta gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua 10 milioi euro ingurukoa.
- 2014ko ekitaldian, kontuak aurkeztu dituzten Herri onurako elkarteen % 27ek (51 elkarte) garrantzi ekonomikoa dute, eta beraz, kanpo auditorearen txostena aurkeztu behar dute, Babesletzaren Erregelamenduan ezarrita dagoenez. Horrez gain, “garrantzirik gabeak” direla uste diren 9 elkartek auditoretzari buruzko txostena borondatez entregatu dute. Horregatik guztiarengatik, berrikusitako erakundeen % 31,7ek kanpo-auditorearen txostena entregatu dute.





## **Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

- Kontuak aurkeztu dituzten Herri onurako elkarteen batez besteko antzintasuna 29,4 urte da; "Eskualde-etxeen" antzintasuna, berriz, 50 urte.
- Aztertutako 189 erakundeetatik % 53k mikroerakundeak dira, hau da, ekitaldian jasan duten gastua guztira 300.000 eurotik beherakoa da.
- Kontuak aurkeztu dituzten euskal Herri onurako elkarteen ondare garbia 120 milioi eurotik gorakoa da. Elkarre horiek, 2014ko ekitaldian, Estatutuetan ezarritako xedeetarako 220 milioi euro baino gehiago erabili dituzte, eta 4.000 pertsona baino gehiago daukate enplegatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteak diru-sarrera publikoen mendean daude neurri handi batean. Xede horretarako, nagusi dira Foru Aldundietatik datozen diru-sarrera publikoak (% 60) eta Eusko Jaurlaritzatik datozenak (% 28). Horiek batik bat "Gaixotasun edo ezgaitasunengatik kaltetuak" helburu duten elkarteetara (% 55) bideratu dira.
- Txosten honetan aztertutako onura publikoko elkarteetako zuzendaritza-batzordeetan sexuek duten ordezkartzari dagokionez, ondorio nagusia honako hau da: 2014ko ekitaldian kontuak aurkeztu dituzten eta zuzendaritza-batzordea sexuen arabera berezita daukagun elkarteen % 9tan, gobernu-organoan ez dago emakumerik, hau da, 182 fundaziotatik 16tan.
- Gainera, aztertutako elkarteen gobernu-organoak osatzen dituzten ia-ia 1.529 pertsonetatik, emakumeak % 43 dira. Zuzendaritza-batzordeetan emakumeak daukaten elkarteetatik, ordezkartzia orekatua % 27k soilik daukate, elkarteen % 43k zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak daukate, eta % 30ek zuzendaritza-batzorde feminizatuak.



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### ERANSKINA: Balantzea eta emaitzen kontu bateratua

#### AZTIERTUTAKO ONURA PUBLIKO KO ELKARTEEN

#### BALANTZE AGREGATUA, 2014 ETA 2013KO ITXIERAN

(Mila Eurotan)

<u>AKTIBOA</u>	<u>2014</u>	<u>2013</u>	<u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</u>	<u>2014</u>	<u>2013</u>
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA:</b>			<b>ONDARE GARBIA:</b>		
Ibilgetu ukiezina	5.960	4.289	Funts propioak:	<b>68.416</b>	<b>66.732</b>
Ondare Historikoko ondasunak	254	259	Zuntz fundazionala/Funts soziala	38.711	38.125
Ibilgetu materiala	61.878	64.178	Erreserbak	13.640	13.677
Ondasun higiezinetak inbertsioak	2.077	1.539	Aurreko ekitaldietako emaitzak	15.396	14.890
Taldeko entitateetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	4.794	4.175	Ekitaldiko soberakina	670	41
Epe luzeko finantza-inbertsioak	5.126	5.538	Balio-aldaketan doikuntzak	237	183
Zerga geroratuen aktiboak	25	20	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	54.051	49.922
Zordun ez korronteak	6.550	7.202			
<b>Aktibo Ez korrontea, guztira</b>	<b>86.665</b>	<b>87.199</b>	<b>Ondare Garbia, guztira</b>	<b>122.704</b>	<b>116.837</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA:</b>			<b>Epe luzeko hornidurak</b>	2.773	2.897
Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteak	-	-	<b>Epe luzeko zorrak</b>	19.563	22.505
Izakinak	254	250	Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko epe luzeko zorrak	8	-
Erabiltzaileak eta jarduera propioaren bestelako zordunak	8.097	7.785	Zerga geroratuen pasiboak	1	5
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	45.653	41.227	<b>Epe luzeko periodifikatzeak</b>	56	0
Taldeko entitateetako eta elkartuetako epe laburreko inbertsioak	859	2.025	<b>Pasibo Ez korrontea, guztira</b>	<b>22.401</b>	<b>25.407</b>
Epe laburreko finantza-inbertsioak	27.469	28.588			
Epe laburreko periodifikatzeak	285	550	<b>PASIBO KORRONTEA:</b>		
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	34.832	31.581	Epe laburreko hornidurak	606	758
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>117.449</b>	<b>112.006</b>	Epe laburreko zorrak	27.591	23.168
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>204.113</b>	<b>199.205</b>	Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko epe laburreko zori	1.578	2.469
			Onuradunak-Hartzekodunak	3.799	3.715
			Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	20.403	20.805
			Epe laburreko periodifikatzeak	5.032	6.045
			<b>Pasibo korrontea, guztira</b>	<b>59.008</b>	<b>56.961</b>
			<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>204.113</b>	<b>199.205</b>



## Elkarteen Erregistro Orokorrean aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

### AZTERTUTAKO ONURA PUBLIKO KO ELKARTEEN 2014 ETA 2013 URTEKO EKITALDIEI DAGOKION GALDU-IRABAZI ORRIA

(Mila Eurotan)

	2014	2013
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA:</b>		
Jarduera propioaren diru-sarrerak	171.418	168.138
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	20.891	20.635
b) Erabiltzaileen aportazioak	14.370	14.488
c) Promozioen, patrozinatzaileen eta kolaboratzaileen diru-sarrerak	15.148	15.251
d) Zerbitzu-emateak	3.847	3.807
d) Ekitadiko soberakinara aplikatutako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	117.163	113.956
Merkatal jardueraren salmentak eta bestelako diru-sarrerak	44.277	43.297
Laguntzengatiko gastuak	(16.761)	(16.537)
Izakinen aldakuntza	(9)	(26)
Entitateak bere aktiborako egindako lanak	15	-
Hornidurak	(12.618)	(12.215)
Entitatearen bestelako siru-sarrerak	2.748	3.137
Pertsonal-gastuak	(131.840)	(128.543)
Ustiapeneko bestelako gastuak	(56.511)	(56.981)
Ibilgetuaren amortizazioa	(6.303)	(6.900)
Soberakinara lekualdatutako kapital diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	6.840	6.759
Hornidura-soberakinak	80	92
Ibilgetu narriadura eta besterentzearen emaitza	819	1.713
Beste emaitza batzuk	(125)	(510)
<b>USTIAPENENKO SOBERAKINA</b>	<b>2.030</b>	<b>1.423</b>
Sarrera finantzarioak	776	974
Gastu finantzarioak	(648)	(534)
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza	48	257
Kanbio-diferentziak	(8)	7
Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitza	(1.532)	(2.068)
<b>FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA</b>	<b>(1.363)</b>	<b>(1.364)</b>
<b>ZERGA AURREKO EMAITZA</b>	<b>668</b>	<b>59</b>
Mozkinen gaineko zerga	2	(18)
<b>SOBERAKINAN JASOTAKO ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>	<b>670</b>	<b>41</b>
<b>ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUAK</b>		
<b>SOBERAKINEKO BIRSAILKAPENGATIK GARBI:</b>		
Jasotako diru-laguntzak	3.679	(3.476)
Jasotako dohaintzak eta legatuak	(149)	904
Bestelako diru-sarrera eta gastuak	56	279
Zerga efektua	-	(5)
<b>ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERA</b>		
<b>ETA GASTUEN GATIK ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>	<b>3.585</b>	<b>(2.299)</b>
<b>IRIZPIDE ALDATZEAGATIKO DOIKUNTZA</b>	<b>(15)</b>	<b>636</b>
<b>AKATSENGATIKO DOIKUNTZA</b>	<b>578</b>	<b>602</b>
<b>ZUNTZ FUNDAZIONALEAN EGONDAKO ALDAKETAK</b>	<b>441</b>	<b>84</b>
<b>BESTELAKO ALDAKETA BATZUK</b>	<b>608</b>	<b>(30)</b>
<b>EKITALDIKO ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>	<b>5.867</b>	<b>(966)</b>